


- Entzutekuak: Misio taldea Haitiri begira
- Zer berri: Aratusteetako egitaraua

soraluzeko
hamabostekaria **214.** alea
2010eko urtarrilaren 29an

pil-pilean




1910-2010

Kooperatibak mendea bete du

PC_PREST

informatika zerbitzuak



- **Hardware Konponketak:** Impresorak, Scannerak, Portatilak, PC-ak...
- **Erosketak:** PC-ak, Portatilak, Impresorak, Kamarak, TDT-ak...
- **Instalazioak:** Sareak, Wifi-ak, Internetak...
- Informatika, Etxeetara konponketak...

Ordutegia:

Goizez: 9:30 - 13:00

Arratsaldez: 17:00 - 20:00

Larunbatak: 10:30 - 13:00

umancio78@hotmail.com

Errabal 19, 20590 SORALUZE

m.660 522 366 • t.943 75 15 48

!!!. SAN BLAS OPILEN LEHIAKETA!

Eguna: OTSAILAK 3, EQUAZTENA

Ordua: EQUERDIKO 13:00ETAN, PLAZA BARRIXAN

Izena emateko: UDALETXERA JO EDO 943 75 30 43 TELEFONORA DEITU

ANIMATU ETA PARTE HARTU!

ANTOLATZAILEA:



SORALUZeko UDALA



ARITZ ARIZAGA



EGOITZ UNAMUNO

ITSUAK?

Iepa Egoitz! Zelan gabizik? Urte berrixa ondo hasi dok seguru, hala espero juat. Kriston helburu pilia ipiniko hittuan; igual puntualidadia hobetzia, beste hau egittia ta holakuak, badakik. Ta horrek zela doiazik? Ondo?

Bueno, gu gurera, urte barrixakin egon zuan telebistiakin lotutako notizia bat, akordatzen? Hil honen 10erako telebista digital barrixa besterik ez genduala ikusiko esaten zebana. Bai negozio edarra egin dabena. Danok juan ginduazen itsu-itsuan telebistarako aparato horrek erostera, telebista osorik berrixa ez dokonian izan. Gainera, gabonak hor pasatu dittuk eta erregalo mundiala izan dittuk aparato horrek, bai jauna! Telebistia bi egunetan jun bihar zala danok siñistuta genduazen, eta ikusik ondio, betiko telebistia ikusten jarraitzen dok, esandako eguna baino ixa hiru aste beranduago.

Gogoratuko haiz aurreko urtian zela euki genduan gripe ospetsu bat. Izena be etxakixat ondo, txerri-gripia, gripe berrixa, A gripia... en fin, Mexiko aldian sortu zan haura. Nik etxakixat zelakuak entzun zian, baina jende pillia hilko zala eta holakuak izan zittuan entzun zianak. Eta gero, hor etorri zuan soluziñua, bakunia. Herrialde aberats guztiek erosi juen euredako nahikua bakuna. Eta ez najoiak diru kontuetan sartzera, beste la orrialde hau txiki geratuko jatak eta. Bueno, urtebete be eztoz pasatu ondio, eta nun geratu dok gripe hori? Noizkua dok euki duan azken berrixa? Baina hor gastautako diru dana, batenbaten poltsikora juango dok.

Etxuat pentsatzerik be nahi nora helduko garan martxa honetan. Esaten, irakurtzen edo entzuten dan guztia hasieratik bukaerara sinisten juau, itsu-itsuan. Igual zeozer aldatu biharko juau, ze bestela ez gabizik ondo, ezta Egoitz? ☞

Goguan hartzeko

“Aberatsa gezur hutsa, beharduna amets hutsa”
Justo Mokoroa

*Esaten,
irakurtzen edo
entzuten dan
guztia hasieratik
bukaerara
sinisten juau*

Aritz Arizaga

*Teknologian
aurreratzen
dogun beste
egitten
juau atzera
gizatasunian*

Egoitz Unamuno

Aupa Aritz,
Beti daok mejourau biharra eta alde batetik aurreratzen dogula uste dogunian bestetik atzera egitten juau. Nik gizarte honek daroian martxiakin horixe sentsaziñuori jakat. Asko aurreratzen juau teknologian baina horretan aurreratzen dogun beste egitten juau atzera gizatasunian.

Beittu, telebista ikusten juat baina bajakixat anestesia gogor bat dala. Gaitzerdi litzakek anestesia goxo bat balitzok baina urte batzuetatik hona sartu dan txerrikeri guzti hori zela baimentzen daben etxuat ententitzen. Telecincoko telediarixuak ikusten dittuanak ohepian lo egin biharko jokgabero. Hango hilketia, hango lapurretia... Hori telediarixuori eta beste txarrikeri horrek egitten dittuenak ez dauaz sano burutik. Hitzetik Hortzera, Bi Errepidean, Sautrela, Ipomamua, Wazemank, Ezdok13... oasixak dittuk, txarrikeri deserto horretan. Oin interneta be hor daok, pelikulak eta bertso sauiak ikusteko nahi duanian.

“GripeA” berriz aspaldikua dok Aritz!! Pentzaik, Bizkaiko Arratiako bailaran inor ez dok akordatzen noiztik dabilen han. Plaentxian bizi dan arratiarrari galdetu biharko jotsau ia zer dan “GripeA” hori.

Egunero lanera juatia eta telebista piztia akordatzen jakuk baina gehixenori “amets egitten ahaztu jaku”, Otxandixoko Gazetxe pareko kontainerrian ipintzen daben moduan. Horregaittik, animo danak Eibarko Tallarra Gaztetxeke ameslari gaztieri. “Sociedad plural, diversidad, consenso” eta patatin eta patatan esanez ahua betetzen daben “democrata” usteko horrek, “tolerancia” haundiz bialduko dotsezen Erchainak bizkarrak noiz berotuko zain daren horrerri! Eta bizkarrak berotzeko peligruan daren beste lagun ameslari daneri! Aurrera amets eginez eta gizatasunez! ☞



GUTUNAK

Kalean zein espetxean errepresioaren errotak ez du etenik

Horregatik Euskal Preso Politikoaren Kolektibo-ko kideok borrokaldi berri bat abiatu dugu aurten.

Kalean sarekadak, auziak, kondenak, espetxeratzak. Ezker Abertzalea, gazteria, Udalbiltza, euskal presoaren aldeko elkartasuna... denentzako egurra! Gasteizko Parlamentuan PP-PSOE bikoteak, euskal gizartearen gehiengoak aldarrikatzen duenaren kontra, gure Asier eta Iñaki maiteei bitziza lapurtu zien dispertsio kriminalaren zilegitasuna aldarrikatu dute. Lotsagarri!

Espetxe barruan gure eta gure senideen eskubi-deak etengabe urratuak dira. Azken hilabeteetako, gure senideak, haur, gazte zein nagusiak umiliatzeko saiakerak ez ditugu onartuko. Lehenik komisarietan torturatu gaituzte, gero urte luzeetan tortura zuria aplikatzeko. Gatza presoak 30 urte daramatza espetxean eta 50 preso biziarteko zigorra aplikatu digute. Traslado etengabeak, presoaren artean egoera ezberdinak, baldintza eramangarriak egoera limiteekin konbinatuz: isolamendua, jipoiak, komunikatzeko arazoak, eta abar... Osasun egoera larrian ditugu kide batzuk.

Zirkulazio aldaketaz II

Azaroaren 5ean Udal gobernuak (*Ezker Abertzalea, EA*) herriko norabidea aldatu zuen. Gure taldearen postura jakinekoa da, ez gaude ados hartutako erabakiarekin. Eta horrela jakinarazi dugu udaletxean gai honen inguruan izan diren bilera desberdinetan. Hala eta guztiz ere Udal gobernuak aurrera egin zuen bere erabakiarekin, herritar guztiok dakigun bezala. Erabaki honen aurrean gure taldeak mozio bat aurkeztu zuen abenduaren 2an burutu zen osoko bilkuran oposizioko beste alderdiekin batera. Mozioa ez zen eztabaidatu, mahai gainean utzi genuen Udal gobernuaren eskariz.

Mozioan bi gauza eskatzen zitzaizkion Udal gobernuari. Alde batetik, sahiesbidea bi norabide-tan ipintzea. Bestetik, zirkulazioaren norabidea lehengo egoerara bueltatzea.

Gure taldeak argi utzi zuen urtarrilean berriz ere aurkeztuko zuela mozioa aldaketarik ez bazen ematen gai honen inguruan.

Abenduan 10ean izandako hirigintzako batzordean, jakinarazi zitzaigun Etxaburueta kalea norabide bakarrean ipiniko zela kontutan edukita

Bitziza jokoan, heriotzaren mugan. Guantanamo espainola eta frantsesa.

Kaleko zein espetxe barruko eraso hauekin, egoera politikoa desitxuratu eta azken hamarkadako urrats politikokoak ezabatu nahi dituzte. Horregatik dei egiten dizuegu, soraluzetarrei, eragile sozial eta politikoei, euskal presoaren eskubideen alde indar egiten jarraitu dezazuela, norabide honetan urratsak emateak egoera orokorrean urratsak ematen lagunduko baitu. Guztioi, egoera politikoa orokorra irauli behar duen prozesu demokratiko indartsua abiatzeko, elkarrekin lan egitea eskatzen dizuegu baita ere.

Amnistia helburu, dispertsio politika amaitu, gure eskubideen urraketa sistematikoa bertan behera gera dadila, ezarritako kondena bete dutenek eta gaixo larri diren presoaren kaleratzea, isolamendu eza, bakartasun eza, gure borrokaren bidez aldarrikatzen jarraituko dugu.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

PEIO ETXEBERRIA eta LURDES TXURRUKA
SORALUZETAKO PRESO POLITIKOAK

puntu beltz bihurtu zela. Gaur arte ez dakigu ezer ere erabaki horri buruz.

Urtarrilaren 13an zirkulazioari dagokionean aldaketarik eman ez zenez berriz aurkeztu genuen mozioa. Udaletxean gauden 11 zinegotzietatik 6k babestu genuen, gehiengo izanik. Hala eta guztiz ere, Udal gobernuaren aldetik argi utzi zuten beraien ez dutela atzera egingo hartutako erabakia. Bestalde, jakinaraztea nahi dugu 479 herritarrek ere sinadurak bildu dituztela Udal gobernuari eskatuz norabide aldaketa.

Herritarrei ondorengo galdera luzatzea nahi diegu. Nola deritza gutxiengo batek gehiengoari bere nahia inposatzen dionean? Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

www.soraluzepnv.com

SORALUZETAKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZETAKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Ainhoa Zubizarreta

Solstizioaren esanahaia aldatu!

Neguko solstizioak Gabonetako jai alaiak iragarri ohi dizkigu, inoren gustoko ez izan arren denok jan-edanari bapo eman eta erregaliak gustora hartzen ditugulako. Urteetan Gaztetxean Hamabostaldi kulturalak antolatu dira. Aurten ere herri erdian izan gara, honek dakarren estres, lan eta pozekin eta hilabete osoko egitaraua bete da. Antolatzaileek, harri-dura eta poza, jende ugari alkartu gabela ikusita. Jokinen Linux sistema operatibo librearen tailarrak Windows sistemari ostiko bat eman zion. Gabonetako betekadei aurre egin eta jan-zaborra gaitzesteko sukaldaritza makrobiotikoko mahai inguru teoriko-praktikoak egin ziren. Barrasek, garaian-garaikoa eta bertokoa kontsumitzea beharrezko dugula gogorarazi zigun. Borroka antikapitalista, osasun mentala eta drogak batzen diren inguru anitzei aurre egiteko bideei buruz hitz egin zen. Azpiegiturak eta ekonomiaz hitz egitera Aitor etorri zen. Batu ginenen artean galderak eta mahai-inguru polita sortu zen. Azken asteko mahai-inguruan Gaztetxean nagusi den pitilin kuadriliak matxismoari eta sexismoari aurre egiteko gizon talde bateko hizlari bat gonbidatu zuen. Denok batera eta errespetuz landu beharreko gaiak ditugu. Bateraketa eta talde lana beharrezkoa da maila berean lan egin dezagun arlo guztietan. Bukatzeko, aipamen bat herriko argazkilari eta artista guztiei, honek aurrera jarrai dezan **GAZTETXEAK AURRERA!!!**

((ENTZUTEKUAK))

Soraluzeko Misio Taldia Haitiri laguntzen**Zela zeguan Haiti lurrikarian aurretik?**

Orokorrian, egoera larrixan dagan herrialdea da Haiti. AEBekin eta Frantziakin kanpo zorrak dititu eta munduan biztanleko errenta txikixena daukan herrialdea da. Ez dago instituzino finko baten presentziarik, oin oindiok eta gutxiago. Lurrikarian aurretik bertako ekoizpen maila oso txikixa zan eta jateko be zailtasunak zittuen.

Ze albiste jaso dozuez zuzenian bertatik? Zeinen eskutik?

Guk Merzedarixetako mojekin dihardugu lanian, Maria Luisa Makinai plaentxiarrakin. Jakin dogunez, lurrikariak herrialde osua suntsitu dau. Eraikin gehixenak jausita dare, errepidiak desagertuta, janari falta dago eta haur eta gazte asko familixarik bare dare. Kaosa da Haiti. Ondorixo nagusixak juango dira azaleratzen eta espero deigun, danon laguntziakin, herrialdea loratzen juango dala.

Zein dira arazo larrixenak momentu honetan?

Lurralde osua egitura bare geratu da. Bertako gobernuak ezin izan dau hondamendi egoeriakin eta AEBek hartu dabe gobernuan patera. Herrialdea garbittu eta bizirik darenak babestia izango da lehen-tasuna. Milaka dira baita zaurittuta edo larri darenak eta honentzat sendagaixak bidaltzia ezinbestekua da. Galdutako umien senidiak bilatu bihar dira eta topatu ezian, honek zaintzia da Merzedarixetako mojen lehen-tasuna.



Mari Carmen Llamas, Mari Glori Vaquerito eta Mertxe Galarraga.

Okupaziño militarra, adopziño ilegalak... merezi dau laguntzak bialtzia?

Zela ez! Duda barik... Haitiarrek bizirauteko kanpo-laguntza jasotzia ezinbestekua da. Zerez genduan egingo guk egoera horretan... Herrialde aberatsak gara bertako pobrezian erantzule nagusixak. Zer gutxiago, janari, erropa eta elikagai bilketia egittia baino! Heltzen ez dan laguntza bakarra, ematen ez dana da!

Urtietan, Haitiko Jacmel hiriko nutrizio egoitza bati laguntzen jardun dozue. Ze pasatu da proiektuakin?

Badakigu egoitza zutik dagauala eta egoera nahiko onian gainera! Paretak pitzaduraz beteta egon arren, zutik dare eta ez da gutxi! Oin balantzia egin bihar...

Inor gogoratuko da Haitiz hilabete batzuk barru?

Baietz espero deigun! Guk guria-kin jarraituko dogu eta fede onez egi-tten dan dana ongi etorrixa izango da! Hori bai, proiektua indartu bihar-ko dogu eta horretarako beste ekital-di batzuk prestatuko dittugu datozen hilabetiotan. ☞

“Danon laguntziakin loratuko da Haiti”

**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**Hotzian eta beruan
jotako tornilluak**Errekalde 21
20590 SORALUZE**T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61**HNOS. BENITO
ANAIK**Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabeT. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Soraluzeko misio taldeak Haitirako laguntza jasoko du



Lehenagoko urteetan egin duen moduan, urtarrilaren 25etik otsailaren 6ra bitartean, Soraluzeko Misio Taldeak Haitira bidaltzeko laguntza jasoko du, Santa Ana kaleko 6. zenbakian duen lokalean (*lehengo Osumadenda zen lokal berean*). Herriak Elkarlanean, Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza eta Merzedarien Kongregazioarekin elkarlanean, hainbat laguntza humanitarioko kontainer bidaliko dituzte Haitiko Jacmel hirira. Horrela, osasun

materiala eta elikagaiak jasoko dituzte ondorengo ordutegiarekin: goizez, 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara.

Osasun materiala eta elikagaien falta

Haititik, osasun materiala eta elikagaiak eskatu dituzte.

Osasun materiala: analgesikoak, antibiotikoak, bendak, gasak, eskuzorroak, maindireak eta mantak eta udako erropak.

Elikagaiak: kontserbako latak, azukrea eta pasta, arroza, lentejak, garbantzuak eta olio behar dituzte.

Horrez gain, laguntza ekonomikoa behar dute besteak beste ura edangarri bihurtzeko, makinena eta kontainerren kosturako eta Haitira bidaiari ordaintzeko. KUTXA-ko ondorengo kontu zenbaki honen bidez ere lagundu daiteke:

2101 0030 92 0011012762

2009an jaiotze-tasa goian mantendu da



Bake epaitegiaren arabera iaz jaiotze-tasa mantendu egin zen 42 haurreko tasarekin. 2002an, 29 haur jaio ziren. Hurrengo zifra altuena bi urte beranduago iritsi zen, 44 haurreko jaio bultziren. 2007an ere, 44 haur jaio ziren Soraluzen, ordea, 2008an 30 izan ziren jaiotzak. Iaz, 42 ume jaio zirenez, jaiotze-tasa goian mantendu da.

Otsailak 13 Torturaren Aurkako Nazioarteko Eguna



Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu:

Otsailak 11, eguna:

Torturak salatzen dituen bideo-emanaldia eskainiko da eta antzerkia jarraian, arratsaldeko 19:30ean Zinean.

Otsailak 13, zapatua:

"Torturari Stop" lemapean, manifestazioa egingo da arratsaldeko 19:30ean Plaza Barritik hasita.

L.H. Ikastetxeko jangelako langileen greba

Jantokiko langileek euren lan baldintzak hobetzearen alde greba egin zuten hilaren 26an eta 28an. Langileen aldarrikapenek ondorengoa eskatzen dute: soldatak % 5ean igotzea, lanaldia 1'5 orduetik 2 ordura luzatzea, lan guztiak lanaldiaren barruan egitea eta formakuntza ikastaroak jasotzea haurrak behar bezala zaintzen ikasteko.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Presoen aldeko baraualdia Soraluzen



Euskal Herriko Preso Politikoen Kolektiboak astebeteko baraualdia egin berri du. Soraluzeko hainbat herritarrek, elkartasun olatuarekin bat egin, eta hilaren 29tik 31ra bitartean baraualdia egingo dute, beste hainbat ekintzen artean.

Urtarrilak 29, barixakua:

20:00etan enkartelada eta ondoren itxialdiaren hasiera

Urtarrilak 30, zapatua:

11:30ean mahai-ingurua eragile eta norbanakoekin

13:00etan enkartelada zubian


Urtarrilak 31 domeka:

13:00etan baraualdiaren amaiera eta manifestazioa. Jarraian ekitaldia

Telebista analogikoa urtarrilaren 30a arte

Udalak jakinarazi berri du, Lurreko Telebista Digitaleko (LTD) estaldura, behin betiko, urtarrilaren 30etik aurrera jarriko dela martxan. Egun, telebista analogikoa martxan badago ere, hilaren 30ean itzali eta LTDa bakarrik ikusi ahal izango da. Modu horretan, telebista ikusi nahi duenak egokigailu bat beharko du.

Aratusteetarako mozorro desfilea antolatu dute

Mozorro festa otsailaren 13an eta 16an ospatuko da eta aurten ere ekitaldiz beteta dator. Iaz eduki zuen arrakasta ikusita, berriro egingo da mozorroren desfilea. Gainera, Udalak, taberna apaindu nahi duten tabernariei dietak emango dizkie. Berauek eskatzeko udaletxeko Kultura Zerbitzuan izena eman beharko da. 



Iazko desfilean mozorro ugari ikusi ziren.

OTSAILAK 13, ZAPATUA

• Goizeko 12etan, herriko kaleetan zehar. **TRIKITILARI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA.** Musika Eskolako trikitilari taldearekin.

• Arratsaldeko 17:30ean, Zubi Nagusitik irtenda. **MOZORROEN DESFILEA.** Txaranga, Batukada, animazioa, traktora...

• Arratsaldeko 18:30ean, Plaza Zaharrea. **DANTZA SAIO PARTE HARTZAILA.** Urrrats dantza taldearen eskuatik.

• Arratsaldeko 19:00etan, Plaza Zaharrea. **TXISTORRA ETA SAGARDOA.**

• Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, Plaza Zaharrea. **ERROMERIA.**

OTSAILAK 16, MARTITZENA

• Arratsaldeko 17:30ean, Herri Antzokian. **HAURRENTZAKO PLAY BACK LEHIAKETA.** Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

• Arratsaldeko 18:30ean, Plaza Zaharrea. **TXOKOLATADA.**

• Arratsaldeko 18:30etik 20:30era, Plaza Zaharrea. **DANTZALDIA.**

• Gaueko 22:30etik 00:30era, Plaza Zaharrea. **DANTZALDIA.**

• Gaueko 23:00etan, Plaza Zaharrea. **HELDUENTZAKO PLAY BACK LEHIAKETA.** DBHko ikasleentzat eta helduagoentzat.

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

ELIZPE Hortz Klinika
GURE ZERBITZUAK
Ortodontzia ikustezina
Inplanteak
✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA
ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)
Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AUERRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

TXURITXU
zuekin
gozatzen
943 75 24 43
SANTA ANA KALEA 22 BEHEA

SORALUZEN EUSKARA IKASTEA GAZTELERA IKASTEA BEZAIN MERKEA DA



Udalak ematen dituen dirulaguntzei esker, ia doan da Sorraluzen euskaraz ikastea. Udalak euskara ikasleendako daukan dirulaguntza sistemagatik da hori. Sistema horrek, guraso, dendari, langabetu, ikasle eta jubilatuei %100-ean ordaintzendeieskoletarako matrikula, langileei %50ean eta errenta-maila batetik behera dabiltzan langileei %100ean.

Beste herri askotan ez bezala, Sorraluzen euskaraz ikastea gaztelerez ikastea bezain merkea da edo merkeagoa. Udalak 2009an 12.000 euro inguru eman ditu bekatari. Gaur egun Sorraluzen 40 lagunek baino gehiagok dihardute euskaraz euskaltegian eta HHIn euskaraz ikasten.

GORA



LOREA Behera penak!

Beharpen hauekin penak behera doaz euskaldunendako. Bejondeizuela, euskaldunongan ere pentsatzearren. Pausoz pauso egiten da bidea eta txikia bada ere, zuek aurrera eman duzue. Bejondeizuela!



ZER EGIN?

Euskaraz ikastera gonbidatu ez dakiena

“

Autoikaskuntza edo on line ikastaruek be eskaintzen dITU AEK-k. Modu horretan askoz errezaguta da jende askorendako ikastaruetan izena emon ahal izatia

”

Otsailean zabalduko da berriz AEKn matrikulatzeko epea eta ekainera bitarteko ikastaroez izango dira aukeran. Euskategiko betiko ikastaroez gain, ikaslearen egoerara egokien moldatzeko ikastaro mota berriak ere eskaintzen ditu orain AEK-k. Autoikaskuntza (etxekolan eta tutoretza bitartez), On line bidezko ikastaroez, mintzapraktika, konbinatuak... Eskaintza berriazaleen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, e-gela@aeK.org helbidera jo edo Sorraluzeko (943 75 14 34) edo Eibarko (943 20 13 79) euskaltegira deitu dezakezue.



BEHERA

ARANTZA Euskaldunendako kea!

Gune honetan nunbait ez dute zigarro kerik nahi baina ahaztu egin dira euskaldunokin eta erretzaileen gunean laga gaituzte, ke guztiak hartzen. Osasunaren oreka errotuluetan ere bilatu behar dela uste dugu.



Zulotik
begira

Bilbo euripean



Ostegunean, urtarrila-
ren 14an, 4. DBH mai-
lako ikasleok Bilbora joan
ginen. Eguraldi oso txarra
egin zuen, euria besterik
ez egun guztian. Autobusa
hartzean eguna lainotuta
zegoen, baina Bilbora hel-
tzean euri zaparrada eta
sekulako haizea zebilen.

Lehenik, Deustuko Salesianos Ikastetxera joan ginen, Drakula antzezlanaren ikustera. Ez nuen uste ezer ulertze-ko gai izango nintzenik baina azkenean istorioa ulertu nuen! Antzezlan guztia hiru aktoreen artean egin zuten eta batek bi pertsonaia antzeztu zituen.



Istoria Drakularen in-
guruan zen; nola aintzina
emakume batez maitemin-
tzen den eta nola emaku-
me honek Drakulak aban-
donatu egin duela pentsa-
tuz, bere burua hiltzen
duen. Drakula hilezkorra
denez urteak eta urteak
pasatzen ditu pena hone-
kin. Baina Ingalaterrara
doanean Mina, protago-
nistaren ezkonagaia, eza-
gutu du eta bere "Mina"

dela pentsatuz, ahalegin guztiak egingo ditu emakume honen maitasuna lortzeko. Minak, Drakula edo protagonisten artean hautatu behar du eta erabakia hartzea oso zaila egin arren, bere senarraren alde egiten du. Hau dena ikusterakoan Drakulak Mina libre uzten du eta hil egiten da.

Antzezlanaren bukatzerakoan, aktoreek galdera saio bat egin zuten ikusleekin, horrela, ondo ulertu ez genituen gauza batzuk beraiek azaldu zizkiguten. ☞



Salesianos-etik aterata ondoren Bilboko Itsasadarra Museorantz abiatu ginen. Itsas ontziak ez dira nire gustokoak eta aspertu egin nintzen pixka bat. Museoan ere bideo bat ikusi genuen: Bilboko antzinako bizitza, merkataritza, ohiturak, meataritza, eta abar. Bilboko kaitik La Casilla parkera joan ginen eta han, Zubiarte Merkatal Zentroan sartu ginen eurretik eta haizetik babesteko. Bokadiloak jan, epeldu pixka bat eta dendak ikusten ibili ginen 15:30ak arte. Ordu horretan autobusa etorri zen gure bila eta 16:30etarako Soraluzean geunden. Oso ondo pasatu nuen eguna eta antzerkia asko gustatu zitzaidan.

Asier Martínez de Alcocer Mancha ☞

Soraluze BHI-ko irakasleen aldetik esan beharra dago irteera polita aterata zitzaiola, nahiz eta ikasleak esan duen bezala eguraldiak ez zigun asko lagundu. Dena den azpimarratu nahi duguna: gure ikasleek izan zuten jarrera ezin hobea egun osoan.



“A” MAILA: Lehen Hezkuntza, 3. eta 4. kurtsoak

“Pijama majikoa”

IBAI TAJUELO



Herri txiki batean bazegoen familia pobre bat: aita, ama eta ume bat. Egun batean, umea kalera joan zen jolastera eta 50 euro aurkitu zituen. Pentsatu eta pentsatu ondoren pijama bat erostera joan zen.

Umeak dendariari esan zion:

— Pijama bat nahi dut.

Dendariak, pijama asko atera zizkion eta ez zitzaion batere gustatzen. Orduan umeak denda-lehiora begiratu zuen eta pijama bat ikusi zuen. Umeak dendariari esan zion:

— Pijama hori nahi dut, denda-lehioan dagoena.

— Pijama hori ez dizut atera, inori ez zaio-lako gustatzen.

— Ba niri gustatzen zait.

Dendariak pijama hori atera zion eta umeak erosi egin zuen. Umea etxera joan zen bere gurasoeri erakustera eta oso polita iruditu zitzaion. Umea, pijama berria jantzi eta ohera joan zen lo egitera. Hurrengo egunean ohetik altxatu zenean harritu egin zen bere logela berri-berria, ikusi zuelako. Sukaldera joan zen eta dena berri-berria zegoen, hozkailua ireki zuen eta dena janariz beteta zegoen, egongelara joan zen eta telebista berri eta handi bat zegoen. Bere gurasoeri logelara joan zen eta dena berria, erropa berria, janaria...

Bere gurasoak esnatu zirenean harriturik geratu ziren poz-pozik. Hurrengo egunean umeak pijama berria jantzi zuen, afaldu egin zuen, dutxatu eta ohera joan zen.

Derrepente pijama hizketan hasi zen:

— Hau dena nik egin dizut, ni erostearren, inork ez ninduen erosten eta. Eskerrik asko.

Umeak eskerrak eman eta poz-pozik lotara joan zen. Azkenean poz-pozik bizi ziren eta pijama majikoa oso ondo zaintzen zuen.

Horrela bukatu zen pijama majikoaren istorioa.





“B” MAILA: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. kurtsoak

“Aldaketa Handia”

LARA BALLESTEROS

Gaur arratsaldean Nagore eta Aitor Begoñaren etxera joan dira. Begoña neska jatorra da, nahi duenean baina, jenio handia dauka. Nagore eta Aitor justu kontra-koak, oso eskuzabalak dira. Eskailerak oso alai igo dituzte hirurek batera.

— Hau da nire logela – esan die Begoñak erakusten.

— Zein polita den zure panpina – esan du Nagorek Katalintxo hartuta.

— Ohetik aterako dut, biok jolasteko – esan du Nagorek Begoñari begiratzten.

— Zenbat kubotxo dituzun, Begoña. – esan dio Aitorrek harrituta.

— Goazen herri handi-handi bat eraikitzera, ederki pasako dugu.

Eta jolasten ari zirenean...zazt! Kubotxo guztiak lurrera bota ditu Aitorrek. Begoñak ez du ezer esan, bere lagunak zelan jolasten zuten ikustean. Logelaren bazter batean egon da.

— Ikusi duzu? – esan dio Begoñak bere hartzatxoari. Nire jostailuak hartu dituzte baimenik gabe.

— Zatoz jolastera Begoña! – esan dio Aitorrek. -Dorre handia egiten ari gara!

— Ez! – erantzun dio Begoñak, oso haserre.

Eta logelatik joan da, amarengana, negarez.

— Zer duzu maitea? – galdetu dio amak.

— Nagorek eta Aitorrek nire jostailuak hartu dituzte – esan du Begoñak.

— Eta zer axola du? – galdetu dio amak harrituta.

— Ez dizkiet nire jostailuak utzi nahi!

— Bakar-bakarrik jolastu nahi al duzu? – galdetu dio amak.

— Ez, baina... – esan dio triste amari.

— Baina, elkarrekin jolasteko jostailuak utzi behar dizkiezu – esan dio amak.

Handik ordu erdira, haurrak bazkaltzera joan dira.

— Baina zertan ari zarete? – esan dio amak.

— Begoñaren erropak dira hauek.

— Begoñak utzi dizkigu – barre egin du Aitorrek. Begoña amaren arrokekin jantzi da.



— Ene! Nire soinekorik ederrena! Eta perlatzio lepokoa! – egin du ohiu amak.

— Ama, badakit maite nauzula eta horregatik hartu ditut zure gauzak. – esan dio Begoñak amari.

Lagunak etxera joan dira.

— Zerbait ikasi duzu gaur, Begoña? – esan dio amak.

— Bai – bota du Begoñak barrezka - Bihar Aitorren etxera goaz eta hurrengoan Nagoreren etxera –esan du Begoñak oso alai.

— Oso ondo, eta orain afaltzera! – esan du amak poz-pezik.

Eta afaltzen honetaz hitz egin dute:

— Begoña, etxera baldin badatoz jostailuak utzi behar dizkiezu, ez erropak – esan du amak.

— Bai ama, horrela egingo dut – erantzun dio Begoñak.

— Orain, hortzak garbitu eta ohera.



“D” MAILA: D.B.H.ko 1. eta 2. kurtsoak

“Egunero sorpresak”

MARKEL GUSTINO

Atzo, egunero bezala goizeko 08:00etan esnatu nintzen oi-loaren kukurrukuarekin batera. Ohetik jaiki hortzak garbitu, ilea orraztu eta jantzi egin nintzen. Gosaltzen nengoela lehiotik begiratu eta egun zoragarri bat zela ikusi nuen. Larunbata zenez eta lanik ez nuenez, hondartzara joatea erabaki nuen.

Kainabera esku batean hartuta eta txankletak jantzi ondoren hondartzaren ezker aldean zeuden haitzetara abiatu nintzen. Bertan, orduak eta orduak eman nituen arrantzan baina ez nuen arrain txiki bat ere harrapatu. Iluntzen ari zenez, jasotzen hasi nintzen eta kainabera igotzean honek pisua zuela igarri nuen, baina ez zegoen arrain bat, horren orde mezudun botila bat harrapatu nuela ikusi nuen. Poltsan gorde eta etxera bueltatu nintzen.

Etxera heltzean dutxa motz bat hartu eta lagunekin zerbait hartzera atera nintzen. Ez zen

berandu etxera bueltatu nintzenean, hala ere, pijama jantzi eta ohean sartu nintzen baina ez nuen logurerik. Orduan, hondartzan hartutako botilaz gogoratu nintzen. Hau lurretik jaso eta indar pixkat egin ondoren tapoia kentzea lortu nuen. Bertan mutil batek idatzitako mezua zegoen. Honela hasten zen:

“Kaixo, ni Alexander naiz. 21 urteko alemaniar bat. Gaur 1923ko otsailak 12, gerra hasi da eta ni bertako soldadua naiz...”

Gutuna aspergarria iruditu zitzaidan beraz irakurtzeari utzi nion. Argia itzali, buelta erdi eman eta amets egiteko prestatu nintzen. Bat batean trumoi hots batek esnatu ninduen goizeko 03:00ak aldera eta berriz ere botilaren kontua buruan nuela konturatu nintzen, horregatik berriz hasi nintzen hau irakurtzen:

“Gerra hasi da eta ni bertako soldadua naiz. Soldaduok bihar goizean hartu behar dugu

trena Italiako hegoalderantz bertako kostatik itsasontzian eramango gaituzte Indiaraino (*bertan dago gatazka*). Duela pare bat ordu afari mundiala izan dut nire bi seme eta emaztearekin. Beraz, tripa betea dut hurrengo hiru egunetarako. Berandu da beraz, jarraituko dut guztiarekin aurrerago, orain, etxekoekin egoteko momentua da”.

“1923ko otsailaren 22 honetan sufrimenduz inguratuta gaude. Ez lo, ez jan, ez edan. Hemen ez dago burruka ez den ezer, hamar egun dira etxetik atera nintzenetik eta jadanik amaitu zait motxilan nuen jateko guztia. Ez dakit maitea, gustatuko litzaidake etxetik atera bezala bueltatzea. Baina ez dakit lortuko dudana, ezta iritsiko ote naizen.”


“1923 otsailaren 27a, gero eta zailagoa da hemen bizirik irautea. Ez dakit zer gertatuko den ezta gutun hau iritsiko zaizun. Baina sentitzen dudana adierazteko modu bakarra da. Zuen beharra dut. Esan Zakir eta Etsaneri asko maite ditudala eta oso zoriontsuak izango dire-

la zu bezalako ama batekin. Eta zuri zer esan... maite zaitut, maite zaitut, maite zaitut!!!

Mesedez, norbaitek mezu hau jasoz gero, bialdu eskutitz bat nire etxera esanez nagoen tokitik beti izango ditudala nire bihotzean eta sinatu Alexander izenez.

*Zakir eta Etsan Estrikor
Txirrifan kalea 15-5-ezkerra
Berlin, ALEMANIA*

Gau osoa eman dut gutunari buelta ematen nire buruan eta gauza bat argi gelditu zait: Zoriontsu izan behar gara dugunarekin edozein momentutan galdu dezakegulako, (*lagun, familia, etxea, edozer gauza...nahiz eta guk dugun bitartean garrantziarik ez eman*). Eta Alemaniara, helbide horretara eskutitza bidaltzea pentsatu dut. Nahiz eta inork hau ez jaso. Badirudi esaten duten bezela egunero zerbait berria ikasten dela.



Mende bat elkarlanean

Ezkerretik eskumara:

Pilar Etxeberria, Begoña Perez de Labeaga, Ana Sebal, Mila Moro, Isabel Aristi, Maite Agirrebaltzategi

Mende oso bat. Datorren maiatzian beteko dira ehun urte herriko kontsumo kooperatibia sortu zala. Sasoi baten eta gaur egun kooperatibia gertutik ezagutu dabenekin egon gara, ibilbide luze horren erretratu sorta bat osatze aldera.

Hamarna pezetakin hasieria

1910ian hamasei lagun batu, bakoitzak 10 pta ipini eta holaxe sortu zeben "Sociedad Cooperativa Benéfica" kontsumo kooperatibia. 1917xan Loyola-Etxea izeneko hiru solairuko eraikina erostia lortu zeben 21.500 pezetan truke. Eskriturak diñenez, orduan Emilio Perez zan tesorero eta Nemesio Oregi idazkari.

MANOLO GALARRAGA

Lelengo presidentian iloba



Gertutik bizi izan dau kooperatibia Manolok. Bere Gosaba Isaac Aldai kooperatibako lehenengo presidentia izan zan. Galarragan ustez, enpresa bat biharrian kooperatibia sortzeko arrazoia, sasoiak berak markatu zeban: "oso sasoi gogorra zan eta kooperatibia inbersio modura sortu zeben. Irabazizak sozio danen artian banatzen zittuen eta ondo etorrixa izan zan." Oso oroitzaz-

"Kooperatibia zentro kultural bat modukua zan"

pen ona dauka kooperatibiaz: "haura zentro kultural bat modukua zan. Han juntatzen zan jentia! Kooperatibiak beste dendak ez zeuken gauza asko zeukazen, surtido gehixago zeguan eta beste itxura bat zeukan".

Gerra sasoiari, irabazizak Frantziara

Gerra etorri eta kooperatibia 6-8 hilabete itxitta egon zan. Francon tropak aillegatu ziranian, herrixan geratu ziran kooperatibako juntako bost bat laguneri bertako dirua lapurtzia egotzi zotsen eta Bergarako kartzelan sartu zittuen. Tartian zeren, Telesforo Iturbe, Bixente Izagirre "Txorixa" eta Larrañaga abizendun bat. Urtebete inguru egon ziran preso harik eta Iturben lehengusu batek etara zittuan arte: "Telesforon lehengusua konstruktoria zan Madrilen. Enteratu zanian honek bostok preso zerela segiduan argittu zeban kooperatibako diruak Frantziako banku baten sartuta zerela. Segiduan danak kalera etaratzeko agindu zeban. Hurrengo astian danak libre zeren! Etara kontuak!"

Gerra ostian, 2.500 lanpostu herrixan

Gerra ostian Soraluze oso desberdina zan: "kiroldegixan fabrikia zeguan eta forjak egitten ziran, zubixak be beste itxura bat zeukan", diño Galarragak. Kanpotik be jende asko etorri zan lanera: "Bergaratik, Antzuolatik, Eibartik, Elgetatik, Azkoittitik... eta urrinagotik be bai, filipinuak, frantsesak, argentinuak, horrek danok etorri ziran herrira. Pentsau, 4.000 biztanle zeukazen Soraluze eta 2.500 lanpostu."

MARI FRAN AIZPURU

Langile ohia



Mari Fran Aizpuru 1960ko hamarkadan dendari lanetan ibili zan kooperatiban. Bere gurasuak bazkide ziran eta berari beti gustatu izan jakonez lan hori, 18 urtekin bertan hasi zan. Zortzi urte pasatxo egin zittuan han ezkondu zan arte. Lana asko aldatu ei da ordutik: *“Lehen dana saltzen genduan granelian. Azukarra eta iriña zakuetan etortzen zan eta gero gu enbalajiaz arduratzen ginan. Demaseko lana izaten zan. Ardaua eta olixua adibidez, erosiak eurak ekarrittako boteilletan eruaten zittuen. Horretan behintzat, lehen oin baino gehixago erreziklatzen zan”*. Mari Fran orduko giro onaz akordatzen da gehixen: *“Kooperatibia instituziño bat modukua zan herrixan. Jende asko juaten zan bertara, baina komertzio txikixa be bazeguan, Kalebarrenen eta. Orduko Soraluze oso diferentia zan. Atai bakoitzian tallarren bat zeguan, taberna, dendaz beteta herri guztia. Dirua gitxi baina bizimodua haundixa. Orduko biharginak oso lotura estua daukagu.”*

**“Dirua gutxi
baina bizimodua
haundixa”**

XXI. mendian, haundixenen keizpetan

Mende oso bat denbora asko da. Jende mordoska bat pasatu da kooperatibako juntatik. Begoña Perez de La-beagak, arduradunak, argi dauka kooperatiben egoeria aldatu egin dala. Soraluzekuakin batera sei dira Euskal Herrixan geratzen diran kooperatibak, Oñatiko, Zarauzko, Barakaldoko eta Eroski kooperatibia. Azken honen kompetentzia igarri egitten da: *“Ez da erreza 100 urte irautia. Eroski kompetentzia zuzena da guretako. Guk azkenian eurak baino prezio garestixaguak daukaguz”*.

Hala eta be, kompetentzia diranekin eskutik ibili ziran hamabost urtian. *“Erreza zan eurekin lan egittia. Lan guztia erdi eginda emoten zotsen kooperatibiari, baina hori be kobratuta. Berendako egitten zebeñ lan eta azkenian, oin hamar urte inguru bakoitza bere aldetik juan zan”*. Eroskikin batzeko arrazoia bazeguan. Han eta hemen zabaltzen hasi ziranez eurekin batzia aukera ona zalakuan egon ziran. Azkenian baina bakoitzak bere aldetik egin zeban: *“Gu hobeto gare gure martxara. Behintzat aurrera goiaz bai eta ez da gutxi!”*



500 bazkide, 900 zenbaki

Kooperatibia 8 lagunek gidatzen dabe: presidentiak, presidenteordiak, idazkarixak eta bost bokalak.


Danak bazkide dira, danera 500 baino gehixago, nor bere zenbakixakin. Urtietan-urtietan lehengo bazkidien zenbakixak gorde egin dittunez, danera 900 zenbaki inguru daukez. Begoñak bazkidien abantailaz berba egin dau: *“Egindako erosketa bakoitza bere zenbakixakin apuntatzen da eta urte bukaeran kooperatibiak izan dittuan irabazixetatik egindako erosketen araberrako portzentaia jasotzen dozu. Hori egitten jarraitzen dogun kooperatiba bakarra geu gara. Irabazixa ez da haundixa, baina ezer baino gehixago bada eta irabazi gutxi izan arren, beti tokatzen da zeozer”*.

Begoña lehengo argazki bat erakusten.

Bazkidiak betebiharrak be badaukez, juntetara juan bihar dira hilian behin eta batzar orokorrera urtian behin. Presidentia eta idazkarixa bi urtian behin aldatzen dittue *“hola hobeto da, jendia segiduan asperitzen da eta”*.

Kooperatibia XX. mende hasieran.

Etorkizun itxaropentsua

Begoñak irakurketa errealistia egitten dau kooperatiban egoeran inguruan: *“gure moduko enpresa guztiak daukena mantentzera joko dabe. Oin perspektiba txarrak ez dira ikusten eta nik uste ez dala desagertuko. Egixa da gaztiak normalian kanpora juaten dirala eroatera, baita jende nagusixa be, bazkide diranak eta ez diranak, baina herrittar askok ondo erosten dau gurian, oso erosle onak daukaguz”*. 



Urteurreneko ospakizunak Maiatzaren 15ean

- Ezoizko Ama abesbatzaren kontzertua, Eguerdiko 12:00etan
- Meza: hildako bazkidien omenez
- Txarangia eta txistularixak
- Umiendako jolasak
- Afarixa



S.O.S. SAHARA!



1975. urtean Marokoko agintariek Sahararak Tinduf-eko (Argelia) basamortura ihes egin behar izan zuten, beraien lurak bat-batean galduz. 35 urte igaro dira Sahara herrialdearen okupazioa eman zenetik eta sahararrak 35 urtetan basamortuan bizi dira, kanpamendu ezberdinetan zatiturik baina inongo baliabide ekonomikorik gabe.

200.000 sahararrek gizarte laguntzen bitartez egin dute aurrera, eta urtero, Euskal Herritik eta baita Estatuko beste hainbat herrialdeetatik ere, janaria garraiatzen duen karabana bat jartzen da martxan. Janari bilketa hau da, hain zuzen ere, Saharako urte osorako jakiak biltzeko modu bakarra.

Esan moduan, aurten ere, Gipuzkoan Saharako errefuxiatuen kanpamenduendako elikagaien bilketa-kanpaina antolatu da, eta ohiturari jarraituz Plaentxi L.H.I. ikasleak kanpaina honetan buru-belarri sartu dira.

Ikasle nagusiekin kanpamentuetako egoera azaltzen ibili ondoren elikagaien bilketari ekin diogu. Jaso beharreko materiala honakoa izan da: arroza, lekaleak, azukrea, atuna, sardinak, pastak eta konpresak.

Antolatzaileek jasotako materiala ikusi ondoren erantzuna ezin hobea izan dela adierazi digute. Zuek, irakurleok, Saharara janaria bidali ahal duzue, eta informazioa nahi duzuenok, Plaentxi L.H.I. galdetu ahal duzue. Animatu eta parte hartu! 🐸



txiki



inkesta

San Blas Eguna ospatzeko ohituria daukazu?

Etxian opilak egitten dittuzue?

Iñaki Recio, 9 urte



Bai, etxian San Blas egunian opilak jateko ohituria daukagu. Normalian amak erosittakuak jaten dittugu eta asko gustatzen jataz! Edarrak dira!

Irati Larreategi, 9 urte



Bai, gure etxian bedeinkatutako San Blasak jaten dittugu, amak egindakuak. Nik bakakitt San Blas opilak egitten baina normalian amak egitten dittuanian ni laguntzaile lanetan ibiltzen naiz!

Iker Etxabe, 10 urte



Etxian, Elizan bedeinkatutako San Blas opilak jaten dittugu eta izekokin juaten naiz Elizara honek bedeinkatzera! Gure etxeakuak berak egitten ditte eta nik be egunen baten ikasiko dot!

Guk dendan erosittako San Blas opilak jaten dittugu eta honek bedeinkatzeko ohituria daukagu. Elizara normalian aitta eta bixok juaten gara baina ama be batzuetan etorri izan da.

Yaiza Fulgencio, 8 urte



RENBORAPASA

» IZEN NAHASIAK

Honatx sei itsas ugaztunen izenak. Hizkiak nahasian ageri zaizkizu. Zein dira?

- 1 MARTSO
- 2 KOFA
- 3 LABEA
- 4 ZIREDAU
- 5 ATXOAKELA
- 6 KARO

1
2
3
4
5
6



ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Maiatzian mende bat beteko dau herriko kooperatibak 1910ian sortu zantetik. Soraluzen dagan denda osatuenetarikua da eta herritarrak kanpua erosteko biharrik ez izateko alternatibia.

Kooperatiban erosteko ohiturarik badaukazu? Ze garrantzia dauka herrixandako?

EZOZI ARRILLAGA
Administratzaile langilea



Bai, lehen juaten nintzan eta oin be bai. Soraluzeko dendetatik osatuena bera da eta bestela hemen ez dare gauza asko. Kooperatibari esker herrixan erosten dogu eta bestela kanpora juan biharko ginake.

IÑAKI OREGI
Estanpadoria




Nik ez dot bertan erosten, errekauek nere andriak egitten dittu eta. Baina bertara be juaten da konpretara. Herrixandako ona da, zenbat eta denda gehixago egon hobea.

MARIA AZULA
Almazeneko langilea



Noski erosten dotela, bertako bazkide naiz gainera. Herrixan betetzen daben funtziñua oso ona da. Inoiz erosketetara kanpora juaten banaiz be, edarto dago herrixak holako den dia eukitzia.

JOSE LUIS AZKORBEBEITIA
Sendagilea



Nere andriak janari-denda bat dauka eta ez naiz asko juaten. Kooperatibarik ez balego danok kanpua erosteko genduke. Denda haundi batekin berrix, denda txixiak itxi egin biharko leukie.

argitek
ELECTRICIDAD • ELETRIZITATEA

David Rascón
607 486 428

Instalaciones y reformas eléctricas en vivienda e industria

Instalazio eta erreforma elektrikoak etxebizitza eta enpresetan

Balategieta, 17 • 20590 SORALUZE

MAPFRE
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gobelatz, 5-8 Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infonegocio.com

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

KM Desing
Diseinua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

III. San Blas opil lehiaketa

Otsailaren 3an, Soraluzeke Udalak III. San Blas opil lehiaketa antolatu du. Eguerdiko 13:00ean egingo da Plaza Barrian. Lehiaketara norberak egindako opilak baino ezingo dira aurkeztu eta parte hartzaileek aurrez eman beharko dute izena, 943 753043 telefonoan edo Udaltxean bertan.

San Blas opilen bedeinkazioa

Herriko abadeak jakinarazi du, San Blas egunean, goizeko 11:30ean bedeinkatuko direla opilak elizan. Arratsaldeko 19:00etan berriz, ohi-ko meza egingo dute.

Pil-pileanetik sagardotegira irteera

Urtero moduan, Pil-pilean Euskara Elkarrekin Sagardotegira irteera egingo du. Martxoaren 6an izango da, zapatua eta Oiarbide sagardotegian bazkalduko dute aurtan. Irteera ordua ere zehaztuta dago: goizeko 12:30ean izango da, Gila Zubitik. Elkarteko bazkideek 31 euro ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 36. Tikitak, Iratxo goxodendan, Arrano eta Gaztelupe tabernetan egongo dira salgai otsailaren 28ra arte.

Debagoieneko Trikitixa Eguna Soraluzen

Apirilaren 17an Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatuko da Soraluzen. Musika Eskolako arduradunek, trikitixa jotzen duten herritarrak gonbidatu nahi dituzte, egingo diren ekitaldi eta omenaldietan parte hartzeko. Bestalde, antolatuko den herri bazkarirako bolondresak behar dituzte, eta lagundu nahi duenak, **943 75 15 44** telefonora deitu beharko du edo **soraluze2@musika.e.telefonica.net** helbidera mezu bat bidali. Bilera informatiboa, otsailaren 12an izango da, arratsaldeko 18:00etan Musika Eskolan.

Musika Eskola Santa Ageda egunean irtengo da kalera

Otsailaren 5ean, Santa Ageda egunean Musika Eskolako kalejira egingo dute arratsaldeko 18:30ean, bandaren laguntzaz eta herriko txistulari, trikitilari, abesbatza eta hizkuntza musikaleko ikasleekin. Santa Ana kaltetik hasi eta Kalebarren, Plaza Zaharra, Gabolatz, Iturburuko Zubia eta Gila Zubia zeharkatuko dituzte eta Plaza Barrian amaituko dute kalejira. Santa Agedako ohiko abestiak kantatuko direla aipatu dute antolatzailak.

**Santa eskean otsailaren 6an**

Urtero moduan, baserri-berri Santa eskian ibiliko dira, Ezozki auzotik hasi eta oinez, herriko auzo danak igaroko dituzte. Parte hartu nahi duenak goizeko 08:30ean Plaza Barrian egon beharko du. Trikitilari eta koplariak izango dituzte lagun eta aurtan Unai Gaztelumendi eta Jokin Labaien bertsolariak ere arituko dira. ☞

**Artea bertatik bertara**

Bi hilabetez Victor Arrizabalaga eta Arturo Andrade eskultoreen artelanak ikusgai egongo dira herriko kaleetan. Plaza Barrian Arrizabalagaren "Solasean" izeneko eskultura eta bigarrena, Arturo Andraderena, Oreka Art galeria ondoan.

Javier Alberdi

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Sorluze

Belarrak

Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11

Jauregi eta Atxotegi San Anton Pilota Torneoko irabazleak



Iturria: Carlos de Coos

1 Jauregi eta Atxotegi txapeldunak.

2 Jauregi, finaleko jokalaria onenaren sariarekin

San Anton Pilota Torneoko finala jokatu zen hilaren 22an Elgoibarko ikastolako frontoian. Norgehiagokan, Jauregi eta Atxotegi bikotea gehiago izan ziren eta soraluzetarrek 22-12 irabazi zuten Uriarte eta Loiola bikotearen kontra. Finaleko txapela beraz, Soraluzera. Asko izan ziren herritik bikote plaentxiarra animatzera hurbildu zirenak eta nahiz eta eguraldi hotza izan, laster berotu zuten giroa.



Iturria: Carlos de Coos

Jauregi finaleko jokalaria onena

Iñaki Jauregik, jokatuako partida eta txapelketengatik, bigarrenez lortu du finaleko jokalaria onenaren saria. Iaz ere, Muguza elgoibartarrarekin bikote, finaleko txapela janzteaz gain, jokalaria onenaren saria ere lortu zuen. 🐾

Igerilekua zabalik da dagoeneko



Kiroldegiko igerilekuak berri-iriz ireki ditu bere atean. Ekainean itxi zutenetik sei hilabete pasa dira eta tarte horretan, hainbat konponketa egin dituzte. Hezetasun arazoak konpontzeko makina sartu berri dute, ura garbitzeko filtroak ere jarri dituzte eta uraren pH-a neurtzeko makina berria ere ipini dute.

Aldagelak eta sarrera, berriztuta

Orain, sarreran, lehen taberna zegoen lekuan harrera dago. Aldagelak ere, txukun daude, dutxa eta takilekin eta erabiltzaileak "oso gustora" daude egin diren lanekin. Kirol jarduera berriak ere antolatu dituzte eta izena eman nahi duenak, otsaila baino lehen egin beharko du, kiroldegian bertan. 🐾

EMAITZAK

PELOTA

Gonzalez – Laskurain 22
Bengoetxea VI – Beloki 9

Gonzalez – Laskurain 22
Olaizola I – Patxi Ruiz 15

Jauregi – Atxotegi 22
Uriarte – Loiola 12

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Mutriku 2 - 3
Zestoa – Sora (Erreg.) 1 - 1
Sora (Jub.) – Bergara K.E. 2 - 3
Ikasberri – Sora (Jub.) 8 - 1
Bergara K.E. "B" – Sora (Kad.) 3 - 2

AGENDA

PELOTA

Zapateria 30, Iruñeko Labrit pilotalekuan

Gonzalez – Laskurain
Olaizola II – Mendizabal

FUTBOLA

Urtarrilak 30, zapatua 16:30ean Errotazar-en

Amaika Bat F.T. – Sora (Erreg.)

Urtarrilak 30, zapatua 11:00etan Estalan

Sora (Jub.) – Urola K.E.

Urtarrilak 31, domeka 16:30ean Mintxetan

Elgoibar C.D. – Sora (Kad.)





ZORION AGURRAK



Inhar Ariznabarreta
Otsailaren 6an 4 urte!
Zorionak polittori!
Muxu handi bat
familia guztiaren partez!



Cristina Morales
Urtarrilaren 23an 32 urte!
Ondo pasatu zure egunean!
Muxu handi bat
lagunen partez!



Santiago Dominguez
Urtarrilaren 22an 65 urte!
Muxu pila bat, emazte,
seme-alaba eta biloben
partez!



Julen eta amama Dolores
Abenduaren 2an eta 27an
urteak bete dituzuelako...
Zorionak eta muxu handi bat
etxeko guztion partez, bereziki
Mirenen partez! "Altza Felipe!"



Jokin Maiora
Otsailaren 7an urtebete!
Zorionak politta!!
Familia guztiaren partez,
bereziki Maddiren partez!



Peio Aranzeta
Urtarrilaren 21ean 4 urte!
Zorionak artista!!
Etxekoen partez!



Enara Agirre
Urtarrilaren 10ean 27 urte!
Amaia Agirre
Urtarrilaren 22an 35 urte!
Zorionak eta urte askotarako!
Etxekoen partez!



Iban eta Miren Muguruza
Urtarrilaren 20an eta 21ean!
Muxu handi asko eta
besarkada pila bat
etxekoen partez!



Lorea Azkona eta Domentx Peris
Urtarrilaren 29an 5 urte eta
urtarrilaren 16an 6 urte!
Zorionak bikote! Etxekoen partez.

jaiotakoak

NAIA BERISTAIN CASAS
UNAI LASKURAIN LOPEZ



hildakoak

FRANCISCO MARTINEZ MARTIN
IGNACIO OREGI URIARTE
MARIA OROZKO ZALEA



LEHTAKETA

- Zein ageri da argazki honetan?



- Saria: "SAN BLAS OPILAK"

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea:** Maialen Larrañaga
- **Gregorito Uribe,** Mendata tabernako jabia da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Mikel Valero

OPILAK BEDEINKATZERA

Argazki hau San Blas egunian etarata dago, Soraluzean. Etxian egindako Opil goxuak bedeinkatzera bidian geldiune bat egin eta argazki eder hau etara zeban familixa honek. Garai hartan, ohitturia zan San Blas opilak etxian egin eta jarraixan bedeinkatzera juatia. Bedeinkazinua-kin batera, hari fin bat eruaten zan eta ohitturan arabera, bedeinkatutako harixa 9 egunez lepuan jarritta euki eta gero, erre egin bihar zan gaitz guztietaz babesteko. Gaur egun, badago ohittura honekin jarraitzen dabenik. ☘

ARGAZKIXAN

Aurrian:

Pili Valero, Guillermo Valero, Goiuri Etxeberria eta Sorkunde Etxeberria

Atzian:

Arrate Alberdi, Lino Alberdi eta Pilar Alberdi

Aldamenian eskuman erdikua:

Maite Etxeberria



MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE

Soraluzeko atarixa

Eguneko albistiak, mediatekako argazkixak, bideuak, plaentxiarren blogak, eztabaida gunia, agenda, pil-pilean aldizkariko aleak, loturak eta harpidetza jasotzeko aukera... dan-dana euskeraz! Urtean 15.000 erabiltzaile ditugu, zatoz zu ere!

Sartu SARIAN eta HARTU parte!!!



**Kukumixo Aisialdi Taldean
begirale moduan parte
hartzerik nahi?**



**943 75 13 04 telefonora deitu edo
koordinazioa@pilpilean.com helbidera mezu bat bidali !!!**

SAGARDOTEGIRA irteera Pil-pileanekin!

- **Eguna:** Martxoak 6, zapatua
- **Ordua:** 12:30ean, Gila Zubitik
- **Prezioa (bazkaria+autobusa):**
36 euro / Bazkideentzat 31 euro
- **Txartelak erosteko:**
Iratxo goxodendan, eta Gila,
Arrano eta Gaztelupe tabernetan

